

HIZKERA JURIDIKOA online

INFORMAZIO OROKORRA

IZENA EMATEKO EPEA	Martxoaren 16tik apirilaren 24ra		
IKASLE KOPURUA	15 ikasle	HARTZAILEAK	Osakidetzako langileak
BETE BEHARREKO BALDINTZAK	3 edo 4. HE gaindituta edukitzea eta abokatu edo erdi-/goi-mailako teknikari izatea.		
AUKERAKETA IRIZPIDEAK	Aholkulari juridikoek eta administrazioan testu juridikoak erabiltzen dituzten langileek. Euskara Planaren eraginpean dauden langileek lehentasuna izango dute ikastaro honetan parte hartzeko.		
IKASTAROAREN DISEINUA	Esther Urrutia Idoiaga eta IVAP	TUTOREA	Esther Urrutia Idoiaga
TUTORETZAK	Ikastaroan, tutoreak hurrengo lanak egingo ditu: - Jarduerak bideratu, zuzendu eta kontsultak jaso nahiz argitu, plataformako foroaren nahiz posta elektronikoaren bidez; ahal dela, erantzuna 24 ordutan emanda - Ikaskuntzaren jarraipena eta ebaluazioa egin.		

IKASTAROARI BURUZKO INFORMAZIOA

DATAK	Ekainaren 1etik 30era. Uztailaren 1ean eta 2an ikastaroan egindakoa ikusteko aukera izango dute ikasleek baina ezin izango dute ezer bidali.
IRAUPENA	15 ordu

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK	Testu juridikoekin euskaraz lan egin behar dutenei hizkuntza-baliabide egokiak eskaintzea, lanpostuko jardunean euren premia zehatzak asebetetzeko. Horrek berarekin dakar: - Zenbait testu-eredu euskaratzeko nahiz euskaraz sortzeko gutxieneko gaitasuna hartzea. - Egun euskara tekniko-juridikoak dituen ezaugarriez jabetzea. - Hizkera juridikoaren lexiko berezia eta ohiko esapideak lantzea. - Euskarazko diskurtso juridikoa sakontzea.
HELBURU ZEHATZAK	Behin ikastaroa bukatuta, euskarazko terminologiaren nahiz diskurtso juridikoaren bereizgarriak jakitea, eta horiek autonomiaz lantzeko makulu aproposak izatea.

GAITASUNAK

Behin ikastaroa bukatuta, ikaslea gai izango da:

- Gaztelaniazko testu juridikoren bat euskaraz eman behar duenean edo testu berri bat euskaraz sortu behar duenean, testu horren diskurtsoak sortzen dituen arazoak identifikatzeko.
- Oinarrizko termino juridikoen eta ohiko esapideen euskarazko ordainak non aurki ditzakeen jakiteko.

PROGRAMA ETA EBALUAZIOA**METODOLOGIA**

Ikastaroa guztiz praktikoa izango da, betiere gutxieneko azalpen teorikoak tartekatuta. Ikastaro osoa linean egingo da, betiere tutorearen laguntzarekin, tutoreak gidatuko baitu ikaslearen jarduna.

PROGRAMA

Bost unitate didaktiko hauek osatzen dute programa:

- Hizkera juridikoari buruzko azalpen teoriko labur eta oinarrizkoa.
- Hizkuntza-baliabideetatik zenbait.
- Termino juridikoak eta zuzenbidearen arloko ohiko esapideak.
- Diskurtso juridikoaren inguruko aholkuak eta gomendioak.
- Terminologia eta diskurtsoa uztartzea.

EBALUAZIOA

Ebaluazioaren helburua: ikastaroaren helburu orokorrak eta zehatza bete edo lortu direla bermatzea. Ebaluazioak bi atal izango ditu:

- Unitate didaktiko bakoitzean, ariketa batzuk proposatu eta zuzenduko dira.
- Ikastaroa bukatzean, aprobetxamendu-proba egin beharko da.

Ikastaroaren amaieran, tutoreak ikasle bakoitzaren ebaluazio-emaiza emango du, GAI edo EZ GAI izan den adieraziz.

**IKASTAROAREN
BALORAZIOA**

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen gogobetetze inkesta

**ZIURTAGIRIA:
APROBETXAMENDUA**

Gutxienez bete beharreko baldintzak:

- Unitate didaktiko bakoitzean, ariketa bat egin eta 1etik 10erako puntuazioan 5 ateratzea.
- Aprobetxamendu proba gainditzea, 1etik 10erako puntuazioan 5 aterata.

HIZKUNTZA

EUSKARA

ANTOLATZAILEA

EUSKARA ZERBITZU KORPORATIBOA

KOORDINATZAILEA

Zerbitzu-erakundeetako euskara zerbitzuak